BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4226

EBAZPENA, 2012ko irailaren 5ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) Bilboko XXXIII. Hirigintza Ikastaroan (2011-2012) eta Donostiako XXXIV. Hirigintza Ikastaroan (2011-2012) aurreikusten duen «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» esleitzen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2012ko uztailaren 25eko Ebazpenaren bidez (2012ko abuztuaren 7ko EHAA, 153. zenbakia) arautu zen Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEEk) antolatutako hirigintzako ikastaroetan aurreikusitako erakundeetan eta/edo enpresetan egin beharreko praktikaldia; halaber, ikusi da LHIEEko Kontseilu Errektorearen proposamena.

Horregatik guztiagatik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– XXXIII. Hirigintza Ikastaroan (Bilbo) (2011-2012) aurreikusten den erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldiaren esleipena eta horri dagokion diru-laguntza onartzea, lortutako puntuazio-ordenaren arabera, eta onuradun bakoitza zein erakundetan egongo den zehaztea.

Fariñas Egana, Goretti (arkitektoa) Bilboko udalean.

Padilla Aizpuru, José Antonio (arkitektoa) Bilboko udalean.

Sánchez Montoya, Amaya (arkitektoa), SURBISA- Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A. enpresan.

Ceberio Blanco, Angel (arkitektoa) Trapagarango udalean.

Fernández Fernández, Nagore (arkitektoa) Muskizko udalean.

Aretxabaleta Ituarte, Maier (arkitektoa) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bulego teknikoan. Eusko Jaurlaritza.

Bigarren artikulua.– XXXIV. Hirigintza Ikastaroan (Donostia) (2011-2012) aurreikusten den erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldiaren esleipena eta horri dagokion diru-laguntza onartzea, lortutako puntuazio-ordenaren arabera, eta onuradun bakoitza zein erakundetan egongo den zehaztea.

Pérez Cortazar, Alejandra (arkitektoa) Eibarko udalean.

Ulacia Olaizola, Omar (arkitektoa) Getariako udalean.

Moyano Hidalgo, Juan Feliciano (arkitektoa) Santurtziko udalean.

Olaizola Gaztelumendi, Eugenio (arkitektoa) Legazpiko udalean.

Hirugarren artikulua.– Hurrengo erakundeak ordezko izendatzea, uko egiten den kasuetarako edo beste edozein gorabehera gertatzen denerako, eskatzen den titulazioaren arabera.

Haraneko udala (arkitektoa).

Muxikako udala (arkitektoa).

Laugarren artikulua.– Erakundeen eskaera bete gabetzat jotzea, ez baitago eskatzen den titulazioa daukan ikaslerik praktikaldirako.

Zierbeneko udala (zuzenbidea).

Trapagarango udala (zuzenbidea).

Santurtziko udala (zuzenbidea).

Muskizko udala (zuzenbidea).

Bilboko udala (zuzenbidea).

Zallako udala (arkitekto teknikoa).

Bosgarren artikulua.– Kanpo uztea, eskabidea epez kanpo aurkezteagatik.

Alberdi Diez, Ane (zuzenbidea). Bilboko XXXIII. Hirigintza Ikastarokoa.

Amorebietako udala (arkitektura).

Elorrioko udala (arkitektura).

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke, edota, bestela, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Errekurtsoari buruz, berariaz, ebazpenik ematen ez bada, ukatutzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 5a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.